

...eta!  
**K**ittoa!

2016-X-6

987 zkia.



# Harixa Emoten liburu egilearekin



## Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia  
Begi lehorraren tratamendua



# + osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales UniverSal

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Telf. 943 20 18 51

RPS: 53/13

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

**Asko dira**  
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

 **EIBAR** ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**hertz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
Konpromisoa

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnua. 943 20 34 46 Tfnua. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

Hobeto zure irudia, osasunean irabazi



**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - Telf.-Fax: 943 206 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapeutak

**FISIOTERAPIA**  
ZENTRUA

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maider Aranberri

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

## – Larriki gaixorik dauden presoak eta urriaren 15a–

Idazki honen bitartez euskal presoekin kartzelatan osasun arloan ematen diren eskubide urraketz hartarazi nahi dugu, bereziki larriki gaixorik dauden presoen kasuena. Legediak oso garbi esaten du: *“A todos los internos sin excepción se les garantizará una atención médico-sanitaria equivalente a la dispensada al conjunto de la población”*. Are gehiago, tratamendu egokia jaso ahal izateko, **larriki gaixorik dauden presoek baldintzapeko askatasuna** ematea ahalbidetzen du.

Baina gaur egun osasun arloan gertatzen diren errealtateen artean hauexek aurkitu ahal ditugu:

- Espainiako eta Frantziako espetxeetan hamar euskal preso daude gaixotasun larri eta sendaezinezekin. Kalean egonik gaitz larri eta sendaezinez jasatea oso gogorra bada, irudika al dezakegu, esaterako, esklerosi anizkoitza, kardiopatia iskemikoa larria, nahasketa psikotikoak edo espon-dilitis ankipoietikoa duten presoek jasaten duten sufrimendua?
- Segurtasun arazoiek erabateko lehentasuna dute osasun eskubidearen gainetik.
- Sendagilearen kontsultan kartzelaria aurrean egoteko agindua dago, eta horrela gaixoaren eta sendagilearen arteko konfidentzialtasun printzipio deontologikoa urratu egiten da.
- Kanpoko konfiantzazko sendagileari kontsulta egiteko aukera normalean ukatu egiten zaio, eta

kontsultak ematen diren kasu bakanetan kartzelako sendagilea aurrean egon ohi da.

- Ospitalerako irteerak hilabete luze eta hainbat kasutan urteak ere atzeratzen dira. Horrela, askotan gertatzen da gaixotasuna garaiz hartzeko denbora pasa eta jada gaitza oso aurreratua dagoenean diagnostikoa ematea.
- Ospitalizazio frogak edo ebakuntzak egiterakoan oso ohikoa da presoak ohatilan eskuburdira lotzea, nahiz eta poliziez inguratuta egon. Osasuneko langileek askotan ikusi izan dute ospitaleetan presoekin ezarrita dagoen protokoloa ez betetzea, presoaren kaltetan.

**Pertsona guztiek dute osasunerako eskubidea eta gaixotasunen tratamendua zein zaintza ahalik eta era egokienean jasotzeko eskubidea.** Aipatutako errealtate horiek kezkatu egiten gaituzte eta horregatik aldarrikatzen dugu euskal presoek ezartzen zaizkien salbuespeneko neurriekin amaitzea eta osasun arloan legeek diotena betetzea. **Aldi berean dei egiten dugu Donostian urriaren 15ean SAREK deitutako manifestazioan parte hartzera.**

Autobusak Egogainen izango dira 15:00etan. Apuntatu Deporren eta Belekun. Zerrendak 13an, 21:00etan, jasoko dira. **Larriki gaixorik dauden presoak etxera!! Osasun eskubidea bermatu!!**

Eibarko SARE

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LAU.-** Zenbakixa. Jolasetan eta jokuetan, eta baita lanean edo bizitzaren bestelako zereginetan ere, zerbaiti hasiera emateko laura arte kontatzen da, ez hirura arte. *“Bat, bi, hiru eta lau! Hasi!!”*. Berdina, aldaparik gabekoa. *“Behin lepua hartu ezker, dana lau-lau duzue gaillurrera arte”*.

## astean esanak

“Turistaren eta bidaiariaren artean bada alderik. Eta bertakoez erabakitzen dute, ez zuk. Bertakoez nola hartzen zaituzten, hor dago muina: zuri alfonbra bat saltzeko beste asmorik ez badute, turista bat zara; etxean hartzen bazaituzte, zure bizitzaz eta zure herrialdeaz galdetzen badizute, orduan bidaiari bat zara, talde antolatutako batean joanda ere. Haiak erabakitzen dute zu zer zaren. Tira, ganoraz jokatzeko da garrantzitsua: begirunez, besteen bizitzetan kontu handiz sartuz... edo sartu gabe. Beti ere, presarik gabe”

(SERGIO FERNANDEZ, BIDAIRIA)

“Suitzan bi galdeketa mamitsu egin berri dituzte. Bata, berdintasunaren izenean herritar guztiei gutxieneko errenta bermatu behar zitzaie ala ez erabakitzeko; ezetza nagusitu da. Eta bestea, segurtasunaren izenean herritarren telefono eta Internet bidezko komunikazioak espiazteko aukerak zabaltzeko; baietz erantzun dute. Gutako askok esango luke euskal gizartea ez dela horrelakoa, eta bi adibideotan justu kontrakoak bozkatuko lukeela. Irailaren 25eko emaitzak eskutan, seguru gaude horretaz? Gure inguruan izan den azken aldiko bilakaera European gertatzen ari denaren parekotzat hartuko nuke nik”

(RAMON SOLA, ZUTABEGILEA)

“Simetrikoa izateak garrantzi handia du izaki guztietan. Eta horren gakoak gure burmuinean dago, gure buruak kalitate kontrolaren ardura duen buruzagiaren paperean simetria hori galtzea eragozten duelako. Esaterako, istripu baten eraginez ume batek hanka bat hausten badu, errekuiperatzeko denbora horretan beste bernaren haztea moteldu egingo da. Inork burmuinari abisatuko ez balio, beste organo guztiak normal-normal garatuko liriateke eta umearen aipatutako gorputz-adarra bestea baino motzagoa izango litzateke. Horregatik errekuiperatzen dira umeek hain azkar edozein istripu, gaixotasun edo operazio batetik”

(MARIA DOMINGUEZ, NEUROBIOLOGOA)



IMANOL MAGRO

## Hungari han?

Galdeketa egin dute Hungarian Siriako errefuxatuei atea ixteko. Parte hartzea ez da %50ra iritsi, baina boza eman duten ia guztiek eskuin muturrarekin bat egin eta errefuxiatuen aurka agertu dira. Hori, Siriatic datozen errefuxatuekin, gerra gordin eta ezagun batetik ihesi. Auskalo zein izango zen emaitza errefuxiatu ekonomikoen, bizitza hobe baten bila etorritakoen, edo gerra hain ez ezagunetatik alde egindakoen inguruan galdetu izan baliete.

Triste nago, gurean ere oraindik entzuten ditudalako "Ni ez naiz arrazista, baina..." hasten diren esaldiak. Estatistikak dio Eibarren biztanleen %9 Espainiatik kanpo jaio direla. Etorkin gutxi daude, baina hala ere, aurreiritziak entzuten dira kalean.

"Laguntza guztiak jasotzen dituzte", laguntza hori eskatu duen inor ezagutzen ez duenaren ahotan.

"Alferkerian dabilta", koadrilan lan bila ez dabilta hiru lagun dituenak. "Lapur gehienak etorkinak dira", Espainian diruaren %27 deklaratu ez dela ikusi nahi ez duenak. Amnistia fiskala baliatu edota Gipuzkoako zerga salbuespenak onartu zituztenak gizon zuriak ziren.

2016an oraindik badago "lehenbizi hemengoak" dioenik, asko gainera. Han eta hemen, beti. Non da han? Duela 50 urte hangoak Extremadura, Burgos edo Galiziakoak ziren, etorkizun hobe baten bila etorritakoak. Orain, "han" hori urrunago dago, baina aurreiritziak berdinak dira. Itxaropena etorkizunean kokatzen dugu beti, urteekin iritzi horiek desegingo direlakoan. Baina orainak ere ematen du kezkatzeko motiboa. Eta Hungariako erreferenduma Euskal Herrian egingo balute?

## Gaztaren inguruko jardunaldixak

Datorren asteeko barixakuan aurkeztuko dabe Gaztaren Debarreneneko I. Astea Portalean, 19:30xetan, eskualdeko sei gaztagilleren parte-hartzia izango daben ekitaldixan. Horren inguruko programiak urriaren 16rako hainbat jarduera aurreikusten ditu eta deigarrixena, duda barrik, Mandiola basarriko artaldiaren eskutik aillegauko jako, goiz horretan ardixak Matsarixa eta

Untzaga bittarteko bidia herri barrutik egingo dabe eta, horrelako jardunaldixetatik kanpora nekez ikusi leikiaz irudixak lagako deskuez. Artzain laguntzaille izan nahi dabenak 11:00etan Matsarixako errotondora juatiarekin nahikua izango dau. Horrekin batera Untzagan hainbat erakustaldi egingo dittue jendiak gazta eta ogixa zelan egitten dan eta artillia nola lantzen daben ikusteko.



**3.516 langabetu dagoz Debarrenian, Lanbideren datuen arabera; 2.013 andrak dira eta 1.503 gizonak. Abuztutik irailera 42 lagun gehixago dagoz izena emonda buleguan. Zerbitzuetan dago langabetu gehixen, 1.929 eta industrian, barriz, 707.**

## Udalarekin euskaraz? Erregular!

Udalera jotzen daben herritarrak euskeria erabiltzera gonbidatzeko asmuarekin, Euskara saillak "Udalarekin euskaraz? Erregular!" kanpaina ipiñi dau martxan eta, horri buruzko azalpenak emoteko, esku-orrixa banatu dabe herriko etxe guztietara. Kanpaiñaren irudixa Jose Antonio Azpilikuetak egin dau: Supermendikute eta Ebarista personaje ezagunekin biñetia sortu dau eta horrekin udala herritarreri zerbitzua euskeraz emoteko gertu daguala eroni nahi dabe aditzera. Goiburuan erabilli daben "erregular" berbia, bestalde, "bai horixe!" edo "jakiña" esateko Eibarren asko erabilli izan dan esamoldia da. Azpilikuetaeren berbetan, "erregular berbia asko gusatzen jata, eibartar peto petua da. Ez dakit aproposena izan leikian, baiña kanpainarena entzun orduko hori urten jatan. Antxiñako txikiteruak esaten eben moduan: - Beste txikito bat hartuko juau? - (Preguntatzia be). Erregular!".

Kanpaiñako arduradunak diñenez, aspalditik zeken horrelako zeezer egitteko gogua: "Izan be, udalian bihar haundixa egin da oin dala 30 urte erabat gaztelaniaz funtzionatzen eban erakundia



euskaraz zerbitzua emoteko moduan preparamatzeko. Horregaitik nahi dogu jende guztiak jantzia udaletxeko bulego edota zerbitzuetara jotzen dabenian euskeraz egitteko aukeria dake-la". Esku-orriarekin batera, frigorifikuan ipintzeko imana be banatu dabe. Guztira 13.500 txartel eta iman egin ditu udalak eta horretarako pre-puestua 8.000 euro ingurukua izan da.

## Aurrekontu Irekiak kanpaiña

Diputaziñuak, Aurrekontu Irekien kanpaiñaren barruan, informaziño-karpa ipiñi eban aurreko astian Eibarren, Untzaga plazan. Horrekin batera, Imanol Lasa diputatuak jubilauekin berba egitteko aukeria euki eban, arratsaldian emondako hitzaldixan. Ekimenari esker hamasei urtetik gorakuak euren lehentasunak ziheztu eta ekarpenak egitteko aukeria dake, horretarako esku-orrixak beteta edo interneten ([Gipuzkoa.eus/par-taidetza](http://Gipuzkoa.eus/par-taidetza)), urriaren 14ra arte.



## Sanmiguelak ospatu zittuen Aginagan

Aurreko asteko eguena San Miguel eguna izan zala eta, asteburuan jaixak ospatu zittuen Aginaga auzokuak. Zapatuan, bestiak beste, briska txapelketia, umiendako jola-



sak, txokolate jana, afixa eta Kupela taldiarekin egindako erromerixia izan ziran protagonista. Domekan, barriz, meza ospatu eta gero umiak ederto ibilli ziran Gorriti eta bere animalixekin. Egitaraua biribiltzeko trikilarixak alaittutako bazkarixa egin eben auzokuak.

Umiak Gorritiren animalixekin ibilli ziran. **Silbia**

## autuan

### San Andres Azokia

Aurtengo San Andres azokan postua ipiñi nahi dabenak azaruaren 7ra arte izango dabe eskaeria egitteko aukeria. Aurkeztu biharreko dokumentaziñua eta eskaera-orrixa Pegoran entregatu biharko dittue edo, bestela, [kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus) helbidera be bialdu leikez.

### Ondarearen inguruan

Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondarearen Europako Jardunaldixak antolatu dittu, Europako Batasunarekin alkarlanian, arlo horretan jendia sensibilizatzeko asmuarekin eta, horren barruan, Eibarko Armagintzaren Museuak topaketa berezixa hartuko dau urriaren 20xan, 18:00etatik aurrera: "Eibarko Paisaje Kultural barrixak" izenburuari jarraituta, sasoi diferentietan izandako migraziñuak gure herrixaren itxuriari zelan eragin detsan aztertzeko aukeria egongo da, Gorka Moreno Ikuspegi-Inmigraziñuaren Euskal Behatokiko zuzendarixak dinamizatuko daben saian. Informaziño gehixago eskatzeko edo izena emoteko 943 708446 telefonora deittu edo [museoa@eibar.eus](mailto:museoa@eibar.eus) helbidera idatzi leike, urriaren 17ra arte.



**Funeraria-Ehorztetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b>  <b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



**IKUSKIZUN AFARIA**

**STEPHY LLARYORA**  
 Urriak 15 23:00etan

**MONOLOGO** ekin  
**25€**

**Ostiral, larunbat eta Igandeetako**  
**MENUAK**  
 Okel parrillada  
 Arrain parrillada  
 Delicatessen pintxoak

**Estaziño, 7**  
 943 20 70 32



**ASTELENA**  
 EIBARKO GASTROTEKA

## Mugikortasun programia artista eta sortzaillientzako

Artista eta sortzaillientzako zuzendutako Europako sormen-mugikortasun programa batian parte hartuko dau Debegesak eta, horri esker, 40 urtetik beherako Debabarreneko artista eta sortzailliak be proiektuan parte hartzeko aukeria izango dabe. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Aquitaine-Euskadi 2016 deialdixan sartuta dago eta 24 sortzailleren mugikortasuna ahalbidetuko dau. Arduradunen berbetan, "mugikortasun proiektu horren bidez, parte-hartzailliak eta proiektuko bazkidiak topaketa ere

muak partekatuko dittue, alkarriketarik egin, sareak eraiki, ideiak lotu, sinergiak billatu, eta ideia barrixetan kooperatu ahal izango dabe". Asmo nagusixa Euroeskualdian sortzaillien artian mugikortasun programa bat abiatzia da eta, diñenez, "programiak 2/3 eguneko egonaldixak eta sorkuntza-ekintzailletza sustatzen daben tokixetara bisitak eskinduko detsez sortzaillieri, bestiak beste".

Eskaeria egitteko hónetako jardunbide batian oiñarritutako enpresa proiekturen bat edo sorkuntza-ekintzailletza egitasmoren bat martxan euki bihar da: Ikusarteak, Ikusentzunezkuak, Diseñua, Arte grafikuak, Teknologixa barrixak, Arkitektura, Artisautza, Moda eta Bitxigintza. Eskaerik urriaren 20ra arte aurkeztu leikez. Informaziño gehixagorako eta izena emoteko [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) webgunian sartu.



## Merkadillua eguenian

Datorren asteko eguaztena jai eguna izango dala eta, asteroko merkadillua egun bat atzeratuko dabe eta, beraz, postuak eguenian ipiñiko dittue bai Urkizun baita Txaltxa Zelaian be.

## Ate irekixen jardunaldixa Afagin

Afagi, Buru Gaixotasuna dakenen eta Senidien Gipuzkoako alkartiak ate irekixen jardunaldixa antolatu dau astelehenerako, Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna dala eta. Horren aitzakixarekin alkartiak Urkizuko dorrietan dakan lokal barrixa eta hor eskintzen dittuen zerbitzuak ezagutzera emon nahi dabe eta horretarako hainbat jarduera preparau dittue, 11:00etatik aurrera: gonbidatuerei harrerria egin eta jarraixan zentrua ezagutzeko bisita hasiko da. 11:30xetan, barriz, presentaziño labur baten ostian Agifes alkartiaren 30. urteurrenaren bideo-proiektziñuek hasiko dira. Egurdixan "Zu bezalako naiz" manifestua irakorriko dabe eta zentruko erabilitzaillien azalpenak entzuteko tartia be egongo da. Eta, agurtu baiño lehen luntxa eskinduko dabe.




10  
URRIA  
OCTUBRE

AGIFES  
Fedeaies

## "Kintuen" bazkarixak

Hainbat urtetan jaixotakuak bazkarixak antolatu dittue urrirako: 1966xan jaixotakuak urriak 15ian alkartuko dira; 1958xan jaixotakuak, barriz, 22xan ospatuko dabe euren jaixa, Azittain erretegixan (argazkixa egitteko 12:45etan batuko dira, Untzagan); eta egun berian egingo dabe bazkarixa aurten 60 urte betetzen dittuenak (1956xan jaixotakuak). Hórrek 13:00ian egingo dabe argazkixa, Untzagan, eta luntxa egin eta gero Kasiñuan bazkaldu eta dantzaldixa eukiko dabe. Juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu ES 3035 0210 56 2100012356 kontuan (Euskadiko Kutxa), izen-abizenak emonda; eta urriko azken hitzordua 1944xan jaixotakuena izango da (29xan): 13:00ian Arkupe tabernan alkartuko dira, piskolabisa egin eta zapixak banatzeke, 14:00xetan argazkixa egingo dabe Untzagan eta bazkarixa, barriz, 15:00etan izango da, Unzaga Plaza hotelian (juan nahi dabenak 60 euro sartu biharko biharko dittu, Euskadiko Kutxako 3035 0078 81 0781052201 kontuan, izen-abizenak ziheztuta). Bestalde, 1951an jaixotakuen bazkarixa azaruak 12xan izango da, Unzaga Plaza hotelian eta juan nahi dabenak 70 euro sartu biharko dittu 3035 0210 51 2101023166 kontuan (Euskadiko Kutxa).



## Jubilauak pentsiñuak hobetzia nahi dabe

AGIJUPENS Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak deittuta, beste herri batzuetan bezala alkarrataratzia egin zan astelehenian Eibarren be, Untzagan. 37.000 bazkide inguru dittuan alkarteko ordezkariak esandakuaren arabera, egunetik egunera hazten doian kolektibuaren bittartez, "zaharrak bizitzia tokatu jakun gizartian eginkizun aktibua betetzeko gauza izatia eta, gure bizitzako amaierako fase honetan ondo merezittako eskubide batzuk izatia sustatzen da". Urriaren 1ian nazioarteko maillan gogoratzen dan Pertsona Zaharren Egunaren harira egindako ekitaldixan irakorri eben agirixak jasotzen dabenez, "triste eta kezkatuta sentitzen gara politikuk gure asmo edo eskubidiak ez dittuelako defenditzen, gurekin ahaztu dira".

Horrekin batera, kolektibuak bizi daben egoeria ekarri eben gogora: "Pentsiñuen erosteko ahalmena murriztu da eta 'kutxa bakarra' hutsik geratzen ari da. Eta pentsiño bajuenak jasota be, askotan famelixen egoera kaotikua moduren batian arin-



tzen daben euskarri bakarra izaten gara". Salatu ebenez, "gobernuak Gizarte Segurantzako pentsiño-kutxako gure dirua bere mesedetan erabitzen dau, hórrek arriskuan ipiñitta. Eta, horrekin batera, alarguntza-pentsiñuen inguruan gaur egun dagan bidegabekerixia salatu nahi dogu. Horrenbestetan agindu daben %70era pixkanaka igotzia eskatzen detsagu".

## Txorroko uraren aldeko kanpaiña

Udaletik aditzera emon dabenez, gure herrixak txorroko uraren aldeko kanpaiñiarekin bat egingo dau. Kutxa Ekoguniaren parte-hartzia dakan ekimenarekin plastikozko botillen konsumua murriztia lortu nahi dabe eta, horretarako, herriko jatetxietan kristalezko pitxarrak banatuko dittue. Edozelan be, plastikua konsumuak benetan behera egittia nahi badogu, sortzen dogun hondakin kopuruaren inguruko kontzientzia hartu eta gure ohitturak aldatu biharko dittugu. Kanpaiña honetan 10.928 euro gastatzia dago aurreikusita, baiña gehixena (8.923 euro) Kutxa Ekoguneak pagauko dau, udalak falta dana (2.000 euro inguru) baiño ez dau ordainduko.



## Azoka ekologikua Urkizun

Domekan Urkizun azoka ekologikuarekin ekin jakon aurten bosgarrenez antolatu daben Debabarreneko V. Aste Ekologikuari. Eguraldixa lagun, Biolur eta Debemen alkartiak udalarekin batera antolatutako azokiak jende mordua erakarri eban eta, aurreko ediziñuetako martxari jarraituta, jendiak gure basarrixetan ekoizten diran produktuak ezagutu eta erosteko aukeria euki eban



[abbiewhiteenglish@gmail.com](mailto:abbiewhiteenglish@gmail.com)

943203197

BISTA EDER 7 BEHEA - EIBAR

**Paula Morales (Aldatzen-eko kidea)**

## "Boluntario ibilita gu zein ondo bizi garen konturatzen zara"

Nora Otegi, Paula Morales eta Jaione Mendia Aldatze ikastetxean DBH-ko laugarren maila ikasten dihardute eta, horrez gain, Aldatzen eskolako boluntario taldeko kideak ere badira. Oso gazteak (14/15 urte dauzkate) izan arren, hiru neska hauek jakin badakite zer den eurak baino okerrago daudenei laguntzea zer den eta, iazko moduan, aurten ere Egoaziarekin batera antolatu duten bazkari solidarioan egongo dira.



Ezkerretik eskumara, Paula Morales, Jaione Mendia eta Nora Otegi ikastetxeko jolastokian. Silbia

**- Noiztik zaudete Aldatzen-en? Nola animatu zineten taldean sartzen?**

Iaz hasi ginen hirurak. Besteei laguntzeko asmoz sartu ginen, boluntario izateak horretarako aukera ematen duelako. Gainera, lagun berriak egiteko aukera ere ematen du eta oso ondo pasatzen dugu.

**- Beraz, zuen laguntza behar duen jendea dagoela uste duzue...**

Munduan gu baino askoz okerrago bizi den jende asko dago. Ez dauzkate guk ditugun eskubide eta aukera berberak eta hori ez da zuzena, denak berdina gara eta, beraz, denok izan beharko genituzke eskubide eta aukera berberak. Guk zorte handia daukagu eskolara joan gaitzkeelako, baina beste toki askotan umeez txikitatik lan egin behar izaten dute eta ezin dira eskolara joan. Horrela bizitzea oso gogorra izan behar da. Batzuetan gu edozein txikikeriagatik hasarratu egiten gara, baina horrela bizi direnekin gogoratu eta gurea ezer ez dela konturatzen zara. Boluntario moduan ibiltzea, besteak beste, gu zeinen ondo bizi garen ikusteko lagungarria da. Bestalde, guretzat lan txikia dena eurek asko eskertzen dutela, gu euren tokian

ipintzeari garrantzi handia ematen diotela uste dugu.

**- Urtean zehar bidezko merkataritzako produktuak saltzen ibiltzen zarete, ezta?**

Bai, hilean behin kalean egoten gara, bidezko merkataritzako produktuak saltzen eta, horretarako, txandak egiten ditugu, taldeka. Eguraldi ona dagoenean San Andres eliza parean ipintzen dugu mahaia, baina eurria eginez gero barruan egoten gara.

**- Urriaren 15ean Untzagan egingo den bazkarian ere lanean egongo zarete?**

Bai, iaz ere han izan ginen, mahaia ipintzen laguntzen eta inguruan zebilen jendeari informazioa ematen ibili ginen. Egun horretan, baina, nahiz eta gauzak egiten ibili ez duzu sentitzen lanean zaudenik, oso gustora ibili ginen eta aurten ere gustora joango gara. Bazkariak gain umeez ondo pasatzeko jarduerak ere egiten dira, pailazoak, sukaldaritzak tailerrak... oso giro ona egoten da eta ederto pasatzen dugu. Bazkarirako tiketak erosteko Kultu, Koxkor, Guridi eta Kontent tabernetara eta Villalba supermerkatuak joan daiteke, 10 euro balio du (7 euro ume, jubilatua eta lan-gabetuentzat).



## JABI BAGLIETTO ARRIZABALAGA

2. URTEURRENA (2014-X-10)

*"Zure umoreaz eta bihotz onaz disfrutatu dugunok ez zaitugu sekula ahaztuko"*

**FAMILIAK GOGOAN ZAITU**







**DANOBATGROUP**

**GOIMEK S.COOP.**  
HONAKO HAU BEHAR DA  
**FRESATZAILE MANDRINATZAILEA**

**FUNTZIOAK:**

- Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketan eta baita akaberakoetan esperientzia izatea.

**ESKAKIZUNAK:**

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heindenhain ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA:**

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2016ko urriaren 12a baino lehen.**

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma.

[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)



**DANOBATGROUP**

**GOIMEK S.COOP.**  
HONAKO HAU BEHAR DA  
**TORNU BERTIKALEKO LANGILEA**

**FUNTZIOAK:**

- Tornu bertikala erabiltzen jakitea, arbastatze eta akaberako eragiketak egiteko.

**ESKAKIZUNAK:**

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC programazioa ezagutzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA:**

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2016ko urriaren 12a baino lehen.**

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma.

[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)

Santi Barrenetxea Razquin lasartearrak 20 urte eman ditu Eibarko La Salle Isasi ikastetxean lanean. La Salleko anaia eta maisua izateaz gain, San Pioko parrokian katekista eta Izartxoko arduraduna (La Sallek daukan denbora libreko taldea) izan da. Uda honetan zerbait desberdina egiteko gogo zuen. Mailetak prestatu eta, PROYDA-PROEGA Gobernu Kanpoko Erakundearen bitartez, Bolivian izan da, behartsuei laguntzen. Han inoiz ahaztuko ez duen esperientzia bizitzeko aukera izan du.



Santi Barrenetxea (kamiseta berdearekin) 20 urtetan egon da Eibarko La Sallen lanean.

## SANTI BARRENETXEA (LA SALLEKO IRAKASLEA):

# “Ahalegintzen naiz bizitzan nire irribarrerik handiena eskaintzen”

**- Udan Bolivian izan zara. Nola hartu zuenuen hara Boliviara joateko erabakia?**

Iaz urte guztia Madrilén egoteko aukera izan nuen. Eta ez nuen desaprobatu, formakuntza bezala erabili nuen: “Teologia eta Catequética” ikastaro bat egin nuen. Orain dela 10 urte Lizentziatura atera nuen eta oso ondo etorri zait urte hau gai horiek berritzeko.

Asteazken batean esperientzi berri bat ezagutu nuen. Madrilén, beste toki batzuetan bezala, badago kristau elkarte bat: San

Egidio elkarte. Elkarte honek behartsuen alde eta bakearen alde egiten du lan: asteazkeneko elkartzan da otoitz egiteko eta gauean Madrilén zehar janaria banatzen du, kaleko jendearentzat: kaleko emakumeak, behartsuak, eskaleak, trabestiak, drogazaleak... Asteazkeneko ehun pertsona baino gehiago eta adin desberdinetakoak (gazteenak unibertsitateko ikasleak, zaharrenak jubilatuek) elkartzan ginen eta taldeka banatuta, Madrilén zehar ibiltzen ginen bokatak, fruta eta colacao banatzen... Hasiera gogorra

egin zitzaidan: egoera desberdinak ikusi, jendea ezagutu, haiekin hitz egin... Gero maiatasunez begiratzen nituen eta saiatzen nintzen nik neukan irribarre handiena ematen... Poztasuna ematen zidan haiek irribartsu ikusteak. Hasieran itxi xamarak ziren, denbora pasa eta gero euren bizitza kontatzen zizuten: zergatik ailegatu ziren egoera horretara, haien familia, lagunak...

Eta nire buruari galdetu nion: eta hau dena hemen geldituko da? Zer egin dezakezu besteen alde? Udan udalekuetan egoten zara, eta aurten zerbait desberdina egiten baldin baduzu?

Eta galdera haiek egiten nituenean Udako proiektu desberdinak etorri ziren nire eskutara: Argentina, Bolivia, Afrika... Hiru hauek Argentina zen gehien gustatzen zitzaidana baina joango nintzen erakundearekin harremanetan jarri ondoren esan zidaten jende asko zegoela apuntatuta eta hobe beste bat aukeratzea. Afrika, hizkuntzarengatik... Eta azkenengo aukera Bolivia nuen... Eta han egin behar genuen proiektu bat ez zen oso erakargarria: kartzelara sartzea... “yuyu” ematen zidan. Baina azkenean hau erabaki nuen, eta ez naiz damutu.

**- Norekin eta ze erakunderen bitartez joan zara?**

La Salleko GKE (gobernu kanpoko erakunde) baten bidez joan naiz. GKEren izena PROYDE-PROEGA da eta urtero Udako



Eskoletan laguntza psikopedagogikoa emateaz gain, aisialdi-jarduerak egin dituzte.

Proiektuak antolatzen ditu. Otsailean lehenengo bilera eduki genuen eta han nire lan-kideak ezagutu nituen: Olatz, La Salle Donostiako andereño bat eta Mertxe, Donostiako bulego batean lan egiten duena... Hasieratik oso talde ona osatu genuen: konprometituta, lan egiteko prest. Uztailaren 14tik abuztuaren 19ra egon ginen Bolivian.  
**- Lan desberberdinak egin dituzue bertan. Umeekin lan egin duzue, kartzelan zeuden presoekin formakuntza eskaini diezue eta nerabeentzako zentru batean ere ibili zarete...**

Trinidadeko La Salle Ikastetxeetan eta Mocoví-ko kartzelan hezkuntza eta formazio jardueretan parte hartu dugu. Haur-eskolan eta lehen hezkuntzan laguntza psikopedagogikoa eskaini dugu eta aisialdiko jarduerak egin ditugu. Asteazkera zehar hiru arratsaldetan joaten ginen Fabian Vaca Chavez eskolara. Mocovíko kartzelara bi arratsaldetan joaten ginen eta formazio jarduerak egiten genituen. Batez ere klaseak ematen genituen: matematikak eta ingurunea. Eta beste proiektu bat sortu zen han geundela: "Centro de adolescentes con responsabilidad penal Má"n 40 gazte zeuden eta gure ardura klaseak ematea zen (Lengua Castellana eta

Natur Zientziak) eta motibazio lanak egitea. 18 urte baino gutxiagoko gazteak ziren eta zigorra betetzen ari ziren motorrak lapurtze-egatik, edo droga banatze-egatik.

**- Euskal Herrian ezagutzen dugun errealitatearekin konparatuta, zer nolako egoera bizi dute Bolivian? Zeintzuk dira ikusi dituzun beharrak?**

Boliviara jende oso hurbila da. Kartzelara joaten ginenean, berehala inguratuta geunden: laguntzeko prest, zer moduz geunden galdetzen ziguten... Kartzelako jendeak premia asko dauzka: batzuk ortozik ibiltzen ziren, erropa puskatuta, eta gose asko pasatzen dute. Bolivian klase sozialak oso nabarmenak dira: aberatsak daude eta jende oso pobrea. Eta jende asko bizi da "con lo puesto" eta "dirua baldin badut gastatuko dut, baina ez dut gordeko". Familia asko egunean zehar jatordu bakarra egiten dute, eta eskerrak... beste batzuk ezta hori ere. Eta jateko ez dute aukera gehiegirik: euren janaria arroza eta oilaskoan oinarritzen da. Fruta asko dute baina azukreduna. Etxe asko bukatu gabe daude. Hasieran dirua baldin baduzu etxea eraikitzen hasten zara. Lehenengo solairua bukatu eta gero, dirua izanez gero bigarrenarekin jarraitzen duzu. Eta

**Kartzelako jendeak premia asko dauzka: batzuk hankahutsik ibiltzen ziren, erropa puskatuta, eta gose asko pasatzen dute. Esperientzia honek erakutsi dit zer ondo bizi garen hemen eta ez garela esker onekoak.**

dirurik ez baldin baduzu, horrela uzten duzu, eraiki gabe. Jende asko txaboletan bizi da: ez daukate urik, hoderiarik ere ez, ur zikina kalean zehar joaten da eta komunean ez dute zisternarik ura botatzeko. Pitxarra bat erabiltzen dute. Kale asko asfaltatu gabe daude... eta espaloiak oso gutxi daude. Zebrabideak badaude, baina jendeak ez dute errespetatzen: edozein tokitik gurutzatzen duzu eta motorrek eta kotxeek ez dute errespetatzen. Kotxean joaten zarenean ez duzu gerrikorik jartzeko, eta motorrean dabilzanak kaskorik gabe ibiltzen dira.

**- Pertsonalki, zer eman dizu esperientzia honek?**

Esperientzia honek erakutsi dit zer ondo bizi garen hemen eta ez garela esker onekoak. Eurak oso gutxiarekin zoriontsu dira. Joan aurretik ez nintzen oso baikorra horrelako esperientzia egiteko eta behin baino gehiagotan esan zidaten "probatu" eta bizi behar nuela horrelako esperientzia bat. Ezetz esan nuen behin baino gehiagotan. Eta orain damutu egiten naiz. Ezer gutxiarekin zoriontsu izan zaitezkeela ikasi dut. Eta daukagunarekin esker onekoak izan behar garela. Gauzak elkarbanatu egin behar direla eta eskuzabal izan behar zarela. Bizitzaz gozatu egin behar dela eta oraingo momentua bizi eta disfrutatu. Askok lagundu dit erderazko esaldi bat: "Puedo... y quiero hacerlo" "Nahi... eta egin dezaket" Eta esaldi honi beste hau gehituko nioke: "Mesedez... irrifar batekin".



Mocoviko kartzelara bi arratsaldetan joaten ziren formazio jarduerak eskaintzera.

## III. BAZKARI SOLIDARIOA

Jana ez da txantxa

Lagundu Peruko landa-komunitateei

**Tickets 10€** 7€ Prezio murriztua ume, jubilatu eta langabetuentzat

Kultu Villalba  
Kaxkor Kontent  
Guridi

Ezin bazara etorri, lagundu egizu zure Zero Plater ticket-a erosita (Borondatezko ekarpena bazkaldu gabe)

**Antolatzaileak**

**EGOAZIA**  
ALDATZEN

**Babeslea** Eibarko Udala  
**Elkarlana** Eibarko Elkarte Gastronomikoak

12.00: Umeendako sukhalde-tailerra  
12.45: Ipuin-kontalaria

Kirolen bat praktikatziak geure gorputzari zelako mesedia egitten detsan umetatik entzutera ohittuta goaz, baiña gorputza ez eze burua entrenatziak zelako onurak dittuan kontu barrixagua da gehixenondako. Edozelan be, gure gizartia zahartzen doian neurrixan, zahartzaruari lotutako dementzia eta burmüñari lotutako gaixotasunen bat dakenen kopuruak be gora egin dau. Horregaittik gero eta gehixago gomendatzen dabe geure buruak aktibo eukitzeko ariketa edo jokuak egittia. Eta batez be edade batetik aurrerakuari esaten badetse be, aholkuak gaztiendako be balixo dau eta, diñuenez, zenbat eta lehenago hasi orduan eta hobia izango da emaitza.



Aurreko astian presentau eben udaletxian Burology programa barrixa.

## Burua be entrenau leike!

**A**urreko astian presentau eben udaletxian Burology izeneko programia Idoia Sarasketa Gizartekintza ziñegotzixak, Burulogy ekimenaren bultzatzailliak, Carmen Rey eta Ibon Torrealday La Caixa banketxeko ordezkariak eta Felix Elkoroiribe eta Daniel Conde, Untzaga eta Beheko Tokia jubilau etxietako ordezkariak. Aurkezpenian esandakuaren arabera, "teknologixa barrixerri egokituta burmüña entrenatzeko programia da eta, horrerri lotutako ariketak egitten dittuenak burua sasoi betian eukitzeko aukeria izango dabe". Horrekin batera, programari esker "burmüñari lotuta daguaz gaixotasunak antzeman, saihestu edo geldotu" be egin leikiazela azaldu eben.

Burology 50 urtetik gorakuendako pentsauta dago, edade hortik gorakuak erabiltzeko bereziki preparauta dago eta. Horregaittik Eibarren jubilauak ibiltzen diran tokixetan ipiñiko dabe martxan, Untzaga

eta Beheko-Tokia jubilau etxietan. Ekimena sustatu dabenak esplikau ebenez, "Burology teknologixa barrixerri egokituta daguan entrenamendu kognitiborako programia da. Parte hartzeko interesa dakenak gaitasun mentalerri egokituta daguaz ariketak eginda hórrek entrenatzeko aukeria izango dabe eta, gaiñera, hori egitten daben bittartian ondo pasauko dabe".

Programia garatzeko ardurria dakenen berbetan, abantaila asko dakaz: "Edozein tokittan egonda be landu leikez ariketak eta, hortaz, buruari sasoiaren eutsi. Horrekin batera eta aplikaziñuaren bittartez batten juaten diran datuerri esker, gure burmüñari zuzenian lotuta daguaz gaixotasunak, Alzheimerria adibidez, detektatu, saihestu edo moteltzeko aukeria dakagu. Eta iktus, trombo eta antzerako gaixotasunen ondorioz galtzen diran gaitasunetako batzuk atzera be onera egitteko aukeria be emoten dau".

### Norberaren premiñetara egokituta

Punta-puntako teknologixia darabilen Burology programia tabletetan erabiltzeko egokitu dabela be azaldu eben: "Horrekin batera, erabiltzen daben pertsona bakotxaren premiñetara egokitzen diran ariketak aurkezten ditte. Holan, jolas modura planteautu daguaz ariketak egitten juan ahala, ondo pasatzi az gain funziño kognitibo guztiak lantzen juaten dira. Bestalde, programiak berak datuak jaso eta gordetzen ditte, hillian behin egitten daben txosten batian jasotzen juateko. Txostenetan jasota daguaz datuerri esker, gaiñera, hainbat gaixotasun sortu eta segiduan, berandu baiño lehen atzemateko aukeria dakagu". Programia garatzeko berezko softwarea erabiltziak hainbat aukera emoten dittuala be argittu eben: "Izan be, software propio bat erabiltzen dogunez, aplikaziñuaren edukixa erabilli bihar dabenak dittuan premiñetara erabat egokittu leike, holan emaitza hobia lortzeko".



**● tartak**  
**● enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
**☎ 943 20 79 73**

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)



**Izen-emotia zabalik**

Jubilauak programaren eta eskintzen dituan bentajen barri jaso deitzen hitzaldi bi emon dittue aste honetan Untzagako eta Karmen Kaleko jubilau etxietan eta parte hartzera animatzen diranak gaurtik hasi eta hillaren 13ra arte izango dabe izena emoteko aukeria, jubilau etxe bi hórretan. Programia gurian garatu ahal izateko Udalak eta La Caixa fundaziñuaren laguntasuna izango dabe eta, horri esker, parte hartzera animatzen diranak merkiago eukiko dabe saiuetara juateko aukeria. Astian behin egitten dan ordubeteko saiua berez 30 euro balixo dau, baiña diru-laguntza hórri esker parte hartzen dabenak 12 euro pagauko dittu eta gaiñontzekua jubilau etxiak (8 euro) eta La Caixak (10 euro) ordainduko dabe. Eta astian behin bi orduko saiua egittia nahi izanez gero, orduan 44 euro ordaindu biharko dira (parte hartzeko izena emoten dabenak 20 euro pagauko dittu, 12 euro jubilau etxiak eta beste 12 euroak La Caixak). Informaziño gehixago nahi dabenak telefonoz deittuta (943-177245 edo 679052651) izango dau edo zelako zalantzak argitzeko aukeria edo, bestela, zuzenian intereneten begiratzeko aukeria be badago, [www.burulogy.com](http://www.burulogy.com) webgunera sartuta.

**Gimnasia Mentala Ipuruan**

Jende guztia ez da informatika eta horrelakuekin ondo moldatzen, baiña horrek ez dau esan nahi burua entrenatu eta hobetzeko aukerarik ez dakenik, ezta gitxiago be. Izan be, teknologixa barrixerri lotuta

egon barik be geure burua eta memoriaria entrenatzeko bestelako aukera batzuk badagoz eta. Ipuruako jubilau etxian, adibidez, aurreko urtutian egindakuaren bidetik aurtan be "Gimnasia Mentala" izeneko ikastarua emoten hasi ziran aurreko hillian. Adindu-ren eskutik egitten diran saiuetan parte hartzen dabenak memoriaria lantzeko ariketak egitten dittue, beti be burua aktibo eukitzeko



*Tabletetan erabiltzeko moduko programia garatu dabe, gaiñera norberak dittuan premiñeri egokitzeko aukeria emoten dau, emaitza hobia lortzeko.*

asmuarekin. Saiuak astian behin izaten dira, astelehenetan 17:00etatik 18:30xetara.

Arduradunak azaldutakuaren arabera, "ariketa ezberdiñen bittartez memoriaria, arreta, lengoaia, imajinaziñua eta bestelako gaitasunak lantzen juaten gara. Horrekin batera, informaziñua hobeto jasotzeko

eta gogoratzeko estrategixak erabillita gure errendimenduak hobera egitten dabela be ikusiko dogu". Horrelako kontuak gero eta interes haundixagua eragiten dabela begibistakua da, Ipuruako klasietarako aurtan osatu daben taldia iazkua baiño haundixagua da eta.

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

**HARTU, TENKA, TIRA!**

**Nafarroa OINEZ\*16**  
 VIANA · LODOSA

**autobus** 12€

Goizeko **08:00**etan  
 IRTENDA

Arratsaldeko **18:30**ean  
 BUELTATZEKO

**zerbitzua**

*urriaren 16an*

**nafarroa oinez**  
**Viana eta Lodosan**

**25. urteurrena**

**Izaga** ileapaindegia  
 berriztuta zuretzat!

txaitxa zelai I, beheko lokala  
 aurre-zifra: 943204124

# moda



# arkitektura

## Joerak joera

Urtero, otsail aldean zein irailean, Paris, Milan, Tokio, New York... prestigio handiko diseinatzailez betetzen dira, modaren munduak kaos hutsa dirudi, eta honen inguruko jendea alde batetik bestera joaten da jarraitzaile leial moduan.

Pasarela gainean ikusitakoak edo askotan, hauen inguruko kaleetan ikusitakoak, urte horretako joerak markatzen ditu. Azkar batean gainera, aldizkariak, telebistak edo internet direla

medio, gainontzeko gizaki orok badakigu zein estilok bonbardeatuko gaituen denborada batez.

Tendentziak, unean uneko janzkera onartuztat ikusita, imitazioa bultzatzen gaitu. Hortaz, jakinaren gainean jarri nahi zaituztet aurten plisatuak, transparentziak, belusezko jantziak, estilo militarra... hemen izango ditugula, gizaki guztion artean bueltaka, eta borondatez edota inkontzieteki bada ere, gutako asko tendentzia hauek erabiltzera bultzatuko gaituztela.

Esan beharra daukat, tendentzia batzuk ongietorriak izaten direla askotan, emakumeon artean bereziki, aurten ere ikusiko dugun "sporty" delakoa esaterako. Gutako askoren mesedetan, zapatillak gure artean geratzeko heldu zitzaizkigula dirudi eta.

Honen inguruan, zerbait bitxia bada-goela esango nuke; gaur egun dotore jantzi eta zapatillak jaztea onartua dago



*laura albistegi*

oso, eta puntu sofistikatua duela gainera, baina zer deritzozue kontrakoaz? Kirola egiteko erabiliko zenukeen jersey eta txikitari hainbeste erabili izan genituen Adidas prakak takoi dotore batzuek lagunduko bagenitu? "Sporty" estiloaren jarraitzaile sutsua banaiz ere, espero dut, gizaki guztion mesedetan, konbinazio hau tendentzia ez bilakatzeari, eta hala bada, joerak joera izateari uko egiteko ahalmena izatea.



*nagore fernandez*



Urte osoa itxaron eta gero, zitzu bizian pasa dira udako porrak aurten ere. Dagoeneko lanera bueltatu gara eta idazteko txanda ere heldu zait, konturatu orduko. Baina oporraldia amaitu izanak ez digu orduan ikusitakoari buruz hitz egitea galarazten, ezta?

Mendi zoragarriak ezagutzeko aukera izan dut. Itsaso gardena eta eguzkia gozatu ditut. Eta harri zaharren artean ere ibili naiz; mendeetan zehar leku


## Harri zaharren xarma

berean egon diren harriak. Ez dakit zein den, zehazki, hauek ikutzeak sortzen didan zirraren arrazoi nagusia. Beharbada beraien iraunkortasuna izango da, monumentu eta eraikin sendo horiek jaso zituztenen jakintza.

Edota urte guzti horietan bizi izan dutena imajinatzea izango da, bestela. Pentsatzearekin bakarrik... Zenbat istorio ez ote dira beraien itzalpean jaio? Somatu izan ote dute inguruko bizilagunen aldeketa urteetan zehar? Jantziarena, tresnarena, hizkerarena? Zer kontu lezake guda ugariren ostean tente jarraitzen duen jauregi batek? Edo egunero munduko ilunabarrik ederrenetako bat lehen lerrotik ikusten duen elizako kanpandorreak? Ene... Harriek hitz egingo balute, hori bai istorio sorta galanta gero, akabo telebista!

Guzti honen ondoren, ideia bat da-

torkit burura: Oso garrantzitsua da eraikuntza berriak ondo diseinatzea... Iraun dezatela beraiek ere horrenbeste urte zutik. Eta noski, izan daitezela erosoak, erabilgarriak eta etorkizuneko aldekak jasateko gai. Uda amaitu berri eta hau lan pila; zaila da ba arkitektoaren ofizioa, ez didazue ukatuko! Eskerrak ostirala den behintzat...




# Sagardo eguna 2016

Azkenean zapatuan eguraldia portatu egin zen eta primeran atera zen XXIII. Sagardo Eguna. Goiz eta arratsaldez jende mordo ibili zen Untzaga plazan Gorenak-eko 13 sagardogileek ekarritako sagardoa dastatzen eta txorizo eta gazta pintxo paregabeak jaten. Kirrikoketa, matxaka eta tolarearen inguruan jende ugari bildu zen goizean eta prestatu genuen muztioak sekulako arrakasta izan zuen.

Gure eskerrik beroenak Gorenak Sagardotegiei; Guridi eta Koskor tabernei; Peña Txinbera, Barakaldo eta Botellin Elkarte gastronomikoei; Jose Luis Fernandez "El Cantón de la Avenida"ri; Jose Mari Alberro, Iñigo Unzeta, Josu Osa, Koroatei baserriko Pilar eta Manueli eta, nola ez, egun osoan lanean jardun zuen lan-talde bikainari. Mundialak zarete! Mila esker!





**X** euskara gozatu  
**EIBARKO UDALA**







# SAGARDO EGUNEKO Selfi lehiaketa



## SELFIE lehiaketako SARIDUNAK

Martitzenean etorri ziren sari bila aurtego Sagardo Egunaren inguruan antolatutako selfie lehiaketako irabazleak. Argazkian ikusten duzun moduan, zozketan saritutako argazkia bidali zuen Jon Izurza lagunekin batera etorri zitzaigun ...eta kittol-ra eta pozarren eraman zituzten Gorenak-eko 13 sagardo botilak. Zorionak eta on egin!





*Fran Ricok sartutako gola ospatzen jarraitu zuten bere taldekideak handik bi ordutara.*

## Eibarrek historia egiten jarraitzen du: oraingoan Santiago Bernabeun

Lehen Mailan jokatzeko duen hirugarren denboraldian lortu zuen Mendilibarren taldeak Real Madrilera zuzeratzea Bernabeun. Seigarren minutuan izan zen eta, handik gutxira, 17.ean berdindu zuen Balek Fran Ricok armaginak aurretik jartzeko lortutakoa. Ondorengo bai ez zuela inork espero, eibartarrek neurketari eutsi zioten moduan eustea: Riesgo atezainak beste inoiz baino lan gutxiago izan zuen, zelai erdian Mendilibarren mutilak nagusitu ziren eta, hori gutxi ez balitz, epaileak partiduaren amaiera adierazi zuenean Eibarko jokalariek erasoan harrapatu zituen, Keylor Navasen atearen bila.

Asteburu honetan ez da partidurik izango 1. Mailan, hurrengo Mundialera begira-

ko selekzioen arteko partiduak jokatu direlako. Ez hori bakarrik, hurrengo asteburuko azken partidua izango delako eibartarra: Osasuna hartuko du Ipuruan hilaren 17an, astelehenean, 20:45-ean hasiko den partiduan. Igo berri nafarrek hiru puntu dituzte eta oraindik ez dute partidurik irabazi. Eibartarrak, bestalde, 11 punturekin dauka zazpi jardunaldi jokatu eta gero: Ipuruan jokoan izan diren bederatziretatik, zazpi hemen geratu dira (Valentziari eta Realari irabazi eta Sevillarekin berdinduta) eta, kanpoan jokatuak lauretatik, Granadan irabazi dute, Real Madrilerekin berdindu eta Deporrek eta Malagarekin galdu, azken bi partidu horietan ere maila erakutsiz.

## Eibar FTko harrobiko taldeak posizioak hartzen

Erregional Gorengo Mailaren bigarren multzoan jokatzeko duen Eibar Urko sailkapeneko erdialdean dago hiru jardunaldi jokatu, eurretan denetarik egin ondoren: irabazi, galdu eta azkenekoan Bergarekin bana berdindu eta gero. Talde hori iaz Urkomendi 14 izenarekin jokatzeko duen taldearen ondorengo da, Eibar FT-ren harrobikoa izatera pasatu dena. Jubeniletan, Ohorezko Maila Nazionalean, bost jardunaldi jokatu, eibartarrak seigarrenak dira azken jardunaldian Osasuna liderrarekin 2-1 lehen partidua galdu ondoren. Markagailuan aurretik ipini eta gero, eibartarrek gehiago mezezi izan zuten, baina amore

eman behar izan zuten Alain aurrelariak lepaustuak apurtu zuten neurketan. Jubeniletako B taldeak lau puntu ditu hiru jardunaldi jokatu eta gero eta sailkapeneko erdialdean dago, azken jardunaldian Legazpin lehen porrota izan ondoren. Eta kadeteetan, larri hasi da Euskal Ligakoa, bost jardunaldi jokatu berdinketa bi besterik ez baitu, azkena aurreko asteburuan Kostkasekin bana izandakoa. Ohorezko Mailakoak 1-2 irabazi zuen azken partiduan Bergaran, Jon eta Gaizkaren golek, eta zazpi punturekin (hiru jardunaldietan, garaipen bi eta berdinketa) sailkapeneko hirugarrena da, Real Sociedad eta Ordiziaren atzetik.



*Erregional Gorengo Mailan jokatzeko duen Eibar Urko talde berria.*

## Atsedena foball-zaletuan

Asteburu honetako zubia aprobetxatuta, KirolBet ligan atsedent hartuko du laugarren jardunaldirako. Aurreko asteburuan jokatuak partiduekin, Garajes Garcia.com jarraitzen du izaten bere partiduak garaipenekin jantzi dituen talde bakarra, baina Durango hasi da ohiko duen goi postuaren bila. Bi horiekin, Bar Areto da partidurik galdu ez duen hirugarren taldea. Bi dira partidurik irabazi gabekoak: Kontent eta Slow XOK, baina horiek ere puntuak bereganatu dituzte. Durango da talde goleatzaileena eta, beste puntan, Esmorgak jaso ditu gol gehien, askorengatik.



## ROSARIO ARRIOLA GARATE 1. urteurrena (2015-X-11)

*“Urtebete gure artetik joan zinela,  
baina hor zaude, gure bihotzetan”*

ZURE SEME-ALABAK, ILOBAK ETA BILOBAK





Montxok ez zion laga golak ospatzeari.

## Montxok golak sartzen bapo egin zuen areto-foballean

Bostetik bostak bereak izan ziren. **Begi-puntua ez zitzaien okertu** partidua iraun zuen bitartean Concepto Egi-leko goleatzaileari. Debabarreneko lehen taldeak nagusitasuna erakutsi zuen domekan San Juanen aurka jokatu-tako partiduan eta, atsedena hartzeko erretiratu zirenean ere, 3-1ekoa erakusten zuen markagailuak. Montxok hirugarren minutuan hasi zuen errezitaldia eta; San Juanek lortutako berdinketari erantzunez, 15. eta 18. minutuetan berriro zulatu zuen aurkariaren atea. Laugarren gola sartu ondoren San Juanek atezain-jokalaria aktibatu zuen, baina erabaki horrek ez zuen partidua martxa aldatu eta Conceptok bosgarren gola lortu zuen.



Hurrengo bi jardunaldietan Elgoibarko taldea kanpoan jokatu du, Santurtzi eta Segorberen kantzetan. Urriaren 23an bueltatuko da etxera, Gracurris hartuko duen partidua erekin.

**Anaitasunarekin etxean erraz galdu eta gero, Uharteren aurka** ez zitzaizkion gauzak hobeto joan Fernando Fernandezek mutilen taldeari. Atsedenaldira mar-kagailuak erakusten zuen 20-10ekoak ondo adierazten zuen talde bien arteko aldea, lehenengo zatiaren erdiaren artekoan gauzak parekatuta (8-7) joan baziren ere. Defentsan ahultasuna nabaritu zitzaizen Somos Eibarko-ek, baloiaren abiadura motela izan zen eta erasoko planteamendua oso estatikoa suertatu zen; aipatutako ezaugarriek zaildu egingo dute hurrengo partiduetan ere edozein 6-0 defentsa gaitziteza.

lazio bi talde onenetakoen aurka jokatu eta gero, etzi eibartarren benetako liga izan daiteke-ena hasi liteke, Egiak bisitatuko baitu Ipurua. Somos Eibarkoek kontu handiz ibili beharko dute Donostiako auzoko aurkariarekin: azken hauek, talde bizkorra osa-

teaz gain, une honetan multzoko liderrak baitira.

Harrobiko taldeentzat aurreko asteburuan izan zen denboraldi hasiera eta, jubilenen mailako mutilen partidua kenduta (Gipuzkoako Txapelketaren barruan 25-22 nagusitu zitzaizkien Ormaizte-gikoei), beste guztiek porrot egin zuten. Gipuzkoako 1. Mailan senior mailako bigarren taldeak, Harritzak, ondo nabaritu zuen iazko jokalaria asko lehen mailara egin dutela jautzia eta, haiek gabe, amore eman zuen Ordizia Siglo XX-ren aurrean (24-26). Jubeni mailako Eibar Avia Eskubaloiko neskek 19-13 galdu zuten Ordizia Irurenarekin. Kadeteetan, bestalde, hauek ere Gipuzkoako Txapelketaren lehian, mutilen Eslaban Eibar Eskubaloikoek 42-22 galdu zuten Gure Auzuneren kantzetan eta Avia Eibar Eskubaloiko neskek 28-13 Trapaia Taberna Pulporenean.



## Muguruza eta Ramon, brontzezkoa judoko Superkopian

**Aurreko zapatuan Irungo Artaleku kiroldegian jokatu-tako maila absolutuko judo Superkopian**, Kalamuako hiru ordezkari lehiatu ziren Euskadirekin eta euretako bik podiumera igoztea lortu zuten. 70 kilora ar-

tekoan, Valentziako ordezkari batekin galdu ondoren, Nekane Muguruzak beste borroka guztiak irabazi zituen eta brontzezko domina eskuratu zuen. 100 kilotik gorako mailan, Julen Ramonek bigarren borroka

galdu zuen, baina halere brontzezkoa bereganatu zuen Frantziako ordezkari bati irabazita. Josu Olmosek ibilbide laburragoa egin zuen bigarren borroka galdu ondoren 60 kilotik behe-rako mailan. Julio Gallegok

epaile lanetan jardun zuen Superkopa horretan eta Euskadik guztira lau domina irabazi zituen, euretako bi (aipatu dugun moduan) Kalamuakoen eskutik.

Saio arrakastatsu horretatik itzulita, Manu Agirre autoz aldatu eta Zaragozara joan zen, Ane Rojo eta Jon Arteagarekin. Gazteek katekin gozatze-ko beste ikuspuntu bat izateaz gain, Agirrerri kata irakasle bezala birziklatzeko balio izan zion jardunaldiak. Eguna amatu aurretik jakinarazi zioten Manuri nazional mailako kata epaile izateko azterketa gainditu zuela.



Zaragozako Monzalbarba herriko kata ikastaroan bildutakoak.

## Katu Kalek garaile hasi du denboraldia

Saskibaloiko Katu Kale-k ondo hasi du denboraldia, aurreko zapatuan Gipuzkoako Koparen barruan Cafes Aitona Askatuak B Donostiako taldea kanporatuta. Iñaki Sanchezek zuzentzen duen taldea 52-45 nagusitu zen, lehenengo laurdena kenduta beste guztietan aurretik joan eta gero. Hasierako laurdenak 13-17koa erakusten zuen markagailuan, baina atsedenaldira joaterako eibartarrek 27-24 irabazten erretiratu ziren. Hirugarren laurdenaren amaieran Katu Kalekoek 12 puntu goitik zeuden eta, azkenekoan aurkariak hiru puntura gerturatu baziren ere, amaiera gerturatzen zihoan neurrian jaurtiketa libreetan asmatzeko garaipen ona eman zien eibartarrei.

Katu Kalek, horrela, Kopako final-laurdenetara pasatzeko txartela eskuratu du. Kanporaketa horretarako Lezora joan beharko da, hango Kurkubi SBK garaitzeko asmoz. Partidua hurrengo asteburuan jokatuko da, aste honean zubia dela-eta partidurik ez dagoelako.



## Waterpolisten aurkezpena Urkotronik-en

Urbat waterpolo klubak denboraldi berrian parte hartuko duten talde guztiak aurkeztu zituen aurreko barixakuan eta senior taldeak asteburu honetan bertan hasiko du denboraldia, Euskal Herriko Ligako partiduan Larrainaren aurka jokatuko beharreko partiduekin. Eibartarrek Iruñean jokatuko dute zapatuan, 13:45etik aurrera. Mailari eusteko borrokan aurkari zuzneka dira nafarrak; hortik neurketaren garrantzia. Aurten ilusioz betetako talde gaztea osatu du Urbatek, "taldearen historian izan duen onenarikoa izango den itxaropenarekin". Aurten Urbaten emakumezkoen taldea ere izango du eta datorren asteburuan debutatuko du.



Jokalari berrien aurkezpena.

## Errugbia: neskak garaile eta mutilek Oviedon galdu

Hirugarren jardunaldian ere ezin: Ohorezko B Mailan jokatzen duen Avia Eibar Rugby Taldeak Oviedon galdu egin zuelako (justu, baina galdu: 30-27). Gaston Ibarburu entrenatzaile berriaren aginduetara diharduen taldeak partida lehiatua eskaini zuen, baina azkenean amore emateko. Emakumezkoen Euskal Liga / Amaiur Torneoko nesken taldeak, bestalde, aurrerapausua egin eta garaipen polita eskuratu zuen (52-5) Gernikaren aurrean eta sailkapenean gora egin dute, erdiko aldean kokatzeko euren burua.

Zure enpresa erakusteko  
leku aparta

# GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus  
943 20 67 76  
www.etakitto.eus



Herenegun abiatu zen Portaleko ikastaro gelan "Harixa Emoten" irakurketa-taldearen ikasturte berria. ...eta kitto!-tik sortutako proiektuak hamar urtetik gorako ibilbidea egin badu ere, hirugarren urtea dugu hau Eibarko Liburutegiarekin elkarlanean egingo dena. Izen-ematea arrakastatsua izan da eta, momentuz itxita dago. Antxon Narbaiza idazleak urteak daramatza saio horiek gidatzen. Anjel Lertxundi izan da ikasturtea hasteko lehen gonbidatua eta, sarrera librea izan zuenez, 30 lagunetik gora izan ziren egilearekin liburuak sortutako inpresioak elkar trukatzeko.



Anjel Lertxundiren liburuak sentsazio mesedegarriak laga ditu irakurleen artean. Maider

## "Harixa Emoten": irakurleak bere liburua osatzeko modua

Martitzenean Anjel Lertxundi Orioko idazlea izan zen gurean berak idatzitako "Zu" azken lanaren inguruan aurrean zituen irakurleak jasotakoa argitzeko asmoarekin eta, baita, euren aportazioen berri izateko ere. Aipatutako liburuan idazlea bere emazteari pankreako minbizia diagnostikatu ziotenez geroztik gertatutakoetan oinarritu da. Hala ere, nobela egin du, "fikzioa idazkuntzan dagoen" bitartean.

Antxon Narbaizak euskal idazlerik oparoenetakoa aurkeztuz hasi zen saioa eta literaturaren alor guztiak jorratu dituela esan zuen, zinemaren mundura murgiltzeraino. "Olerkia ez du landu, baina bai itzuli", adierazi zuen Narbaizak. Berak irakurritakotik, "emakume adoretu baten borrokaren" aurrean gaudela esan zuen. Garrantzia eman zion "nobelan agertzen den bikote baten sinesmenaren bilakaerari, batez ere ikuspuntu lai-

kotik egiten delako". Idazleak pedagogia egiten duela esan zuen, bakarrizketa ere bada-goela bertan eta "aurkitzen diren eufemismoak ez dira trukulentzian erortzen". Antxonon ustetan, "hitza terapia da, laguntza du bizitzeko".

Anjel Lertxundik hitz egin zuen ondoren, lanari zelan ekin zion azalertzeko. "Bizitzaren aldeko aldarritzat" izendatu zuen nobela. "Gaixo dagoenari errendizio modukoa eskatzen zaio askotan", erlijio ingurutik datozen mezuak aipatu zituen. "Baina, estualdi txarrenetan ere, bizitza goza daiteke", gaineratu zuen. "Horregatik, bizitzarenganako begirune atseginarenarekin jardun izan dut, dugun altxorrik preziatuena delako". Aurrekoarekin batera, "Zu" bizitzaren misterioa ulertzeko saiakera ere izan dela aitortu zuen egileak.

Lehenbiziko testuak "ez ziren publikatzeko asmoarekin sortu; gehiago ziren lasaialdi

moduko bat, itsasoaren olatuen aurkako ahaleginaren antzerakoak". Berak, Anjelen emazteak, animatu zuen egilea bere lana publikatzera. Gehiago esango zion, Lertxundik aitortu zuenez: "Ni hildakoan ez argitaratu, eh!". Hori bai, "euskaldunok hain gurea dugun diskrezioz egindako lana" dio egileak. Eta eskerrak ematen du inoiz espero ez lukeen "harrera izan duelako liburuak eta, berari esker, harreman asko izateko" balio izan dielako.


Saioko irakurle batek minbizia izan zuten bere inguruko bi lagun kasuak aipatu zituen eta "liburuak bilirrubina igotzeko balio izan" ziola gaineratu, "liburua berriro irakurtzeraino. Zergatik zu? galderari bueltarik eman gabe" irakurtzea bera gozatzeko parada eskaintzen duela esan zuen. Aurrekoaren haritik, eta aipatutako irakurleak liburua Durangoko Azokan erosi zuela esan zionez, Ler-

azaroaren 8an



Asier Serrano:  
"Linbotarrak"

abenduaren 13an



Joxemari Iturralde: "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak"

urtarrilaren 3an




Alaine Agirre:  
"X hil da"

otsailaren 7an



Bea Salaberri:  
"Baionak ez daki"



## “Irakurleek idazleak hasitako lana aberasten dute”

**- Zertan izan da desberdin liburu hau aurretik egin dituzunekin alderatuta?**

Literarioki antzerako helburuak izanda ere, honakoan esperientzia pertsonal batetik abiatu naiz. Badira, jakina, fikziozko atalak, baina abiapuntua ez da hori izan. Nobela ez da autobiografikoa, baina bere funtsa esperientzian oinarrituta dago. Azken batean, emaztearen gaixotasunak aukera eskaini dit gertatutakoa ulertzeko ahalegina egiteko.

**- Bazabiltza proiektu berriei bueltak ematen? Epe laburrera gauza berriak kaleratzeko asmoz?**

Une honetan, egia esan, harrapatuegi nago, etxeko gaixotasunari aurre egin ez. Hala ere, proiektuak badira, fikzioek tartea badute buruan, hemendik irten eta urrutiratzeko gogoz. Formalki zeozer berria egitea nahiko nuke. Noiz kaleratuko den? Gutxien espero dugunean; horrela izaten da askotan.

**- Zelan ikusten duzu horrelako irakurketa-taldeen funtzioa?**

Irakurleei aurpegia jartzeko balio izaten dute. Eta baita lanaren harrera pertsonala zelakoa izan den jabetzeko ere. Izaten dira ezusteak halakoetan eta, alde kritikotik ikusita ere, batek pentsatuko ez lituzkeen gauzekin egiten dut topo hainbatetan. Jakina, irakurleak bere liburuak egiten du eta, bide batez, idazlearen zeregina aberasten da.

**- Euskal idazleen munduak orokorrean hartuta, zer egoera bizi du egun?**

Inoiz ez bezalakoa. Adin eta lan egiteko moduetan formulazio ezberdinak daude eta ugaritasun hori aberasgarria da aldi berean, nondik begiratzen diozun ere. Higidura uniformea izatetik urrun gaude, zorionez. Aurpegi askotarikoa daude euskal idazleen munduan eta irakurleak eskatu eta eskertzen du hori, aukerak zabalagoak direlako.

txundik toki berean gertatutakoa kontatu zuen: *“Han liburuak sinatzen nengoela, gizon bat bueltatu eta ‘Ni ere Zu naiz’ esan zidan. Orduan konturatu nintzen asmatu nuela, sentimenduak zelan tratatu lortu nuela zeozer”*.


Idazleak heriotza eta gaixotasuna literaturan zelan tratatu dituzten kontatu zuen ondoren, *“esperientzia pertsonaletatik abiatuta behin baino gehiagotan”*. Arlo horretan, Thomas Mann-en *“La montaña mágica”* aipatu zuen, *“haren emazteak izan zuen tuberkulosiaren”* berri ematen zuena. Albert Camusen *“La peste-n”* eta Simone de Beauvoir-en amaren kasuan ere aurkitzen da gaixotasunen inguruko fikzioa. *“Sufrimenduari buruz mendebaldean izan dugun ikuspuntua ekarri nahi izan dut, Montaignek eta -gure kasuan- Axularrek klasikoen ekarpenak egin zituzten modura. Horrek ez du ezer txarrik; zelan kudeatzen duzun dago gakoa: aipuak disimulatu barik eginda nahikoa da. Askotan ez dago adostasunik halakoak adierazteko eta horrek beste pertsonaia bat sortzera eramaten zaitu”*.

Beste irakurle batek liburuak *“beldurrez”* irakurtzen hasi zela aitortu zuen. *“Baina, ondoren, gaixotasuna onartzera eramaten zaitu eta, azkenik, bakean izatera. Pentsatzen lagundu dit eta izan dira tartekak barrez gozatzekoak ere”*. Halako sentazioak sortzeko *“asmakizun gutxi”* dagoela esan zuen Lertxundik. *“Apaiza da asmatutako pertsonaia, abiatzeko balio izan zitzaidana, baina gutxi asmatu dut nobela honetan”*.

Irakurleek eskatuta, ondo argitu zuen Anjelek zergatik *“goraipatzen duen Osasun Publikoa, liberaltasunez moztarrotutako Osasun Pribatuaren aurrean”*. *“Hunkigarria egiten zait pentsatzea guk ordaindu ezingo genuena izan zitekeen ordaindu izan dugula”*. Guk dugun sistema solidarioena dela esan zuen eta *“anonimosasun horrek”* balio handia duela. *“Osakidetzak edo beste zeozer izan, filosofiaz ari naiz. Munduko biztanlegoaren erdia baino gehiago zangara doa horrelako egoeretan. Herrialde aurreratuen kontsideratzen direnatan ere atzo ondo zeunden eta bihar diru-eske”*. Horren inguruan honako mezua eman zuen: *“Izan gaitzezen eskuzabalak. Zergekin izan daitezkeen iruzurrak direla-eta, zenbatean entzuten dugun tontoak garela. Ba, nire ustez, tontoak izan behar gara!”*.

Horrelako gaixotasun baten aurrean hainbat gomendio izaten direla-eta, *“bakoitzak ikusiko du, baina guk medikuak esan digunari jarraitu diogu”* onartu zuen. *“Horrez gain, badago joera bat humanismoa baztertzen duena, teknizismoaren mesederako. Medikuntzan, esate baterako, arlo humanistikoan zegoen asignatura bakarra, Medicina-*

### martxoaren 7an



**Goizalde Landabaso: “Babeserako kopia”**

### apirilaren 4an



**Arrate Egaña: “Paradisua”**

### maiatzaren 2an



**Pello Lizarralde: “Elur bustia”**

ren Historia, kendu egin behar dute. Baina aurrean duzuna ez da gaixoketa bat, gaixoa baizik. Ez zarete konturatu medikuak bakarrik pazienteari begiratzen diola? Besteoi ez gaituzte begiratu ere egiten”.

Amaiaran liburuaren izenburuari heldu zion: *“‘Zu’ hori gaztelerazko ‘otredad’-etik dator, bestea dena. Batzuetan senarra dena beste batzuetan idazlea bihurtzen da. Hor badago ahalegina bestearengana heltzeko, askotan ezinezkoa bada ere. Abentura bat da, azken batean: Kilimanjaro ere han dagoen moduan, baina zuk bertara nahiko zenuke heldu. Narratiba eman behar nion testuari eta, aldi berean, gutxieneko hausnarketa egin; hori bai, gero hasitako moduan amaitzeko, hau da, narratiboki”*. Aroztegi literarioa izan den lan horretan, baina, nola iritsi irakurlearengana? *“Bide horretan, nahigabe ere, narratzaileak indarra hartzen du”*.

Irakurle askok nobelaren amaiara bikaina dela esan diote egileari eta idatzitakoak islatzen duen maitasuna goraiatu. Berak, *“ez nuen amaiara hori hasi nintzenez. Umea jaio eta gero entregatu nuen”*.

Liburuak gaztelerara ere itzuli da. *“Tú”* Gerardo Markuletak itzuli du. *“Euskerazko lan batek erdaraz denbora gehiago behar duela”* dio Anjelek: *“Zabalkundea zailagoa izanda ere, nahiago dut hemengo argialetxe batekin lan egitea”*.



## Kafe ikastaroa ostalari eta tabernarientzako Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan

Primerako kafeak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek "Ostalariak Berbetan" egitarauaren barruan. Iaz koktel ikastaroak izandako arrakasta ikusita, aurten kafearekin zerikusia daukan saioa antolatzea erabaki dute Euskeraz Primeran! kanpainan atxikituta dauden tabernari eta ostalarientzako. Ikastaroa urriaren 25ean arratsaldeko 17:30ean hasi eta 19:00etan amaituko da.

Ikastaroaz arduraduko diren Iñaki Querejazu eta Josu Abadek kafe on bat prestatzeko eman behar diren pausoak azalduko dituzte. Kafe mota desberdinak (irlandesa, kaputxinoa, kafe-latte...) nola prestatzen diren erakutsiko dute eta baita kontutan izan beharreko alor guztiak zeintzuk diren, ez bakarrik kafe mota, makina, materiala... baita presio puntua, osagaien kontserbazioa...etabar.

Azken batean, bezeroari kafe ona eskaintzeko pautak eta aholkuak emango dituzte eta gure taberna beste batzuegandik desberdintzeko modua. Izena emateko epera zabalik egongo da urriaren 21era arte. Horretarako ...eta kitto!ko telefonora deitu daiteke (943 20 09 18) edo elkartea@etakitto.eus posta elektronikoa erabili.

*Gozatzeko bertso saioa izan zen Hankamotxak antolatutakoa. Maialen*

## Bertso saio arrakastatsua

Pozarren irten ziren ikus-entzuleak aurreko barixkuan Hankamotxak bertso eskolak antolatutako saiotik. Euria iragarrita zegoela eta, bertso saio musikatua azkenean Portalean egitea erabaki zuten eta, joatera animatu zirenek esandakoaren arabera, "ondo baino hobeto" pasatu zuten Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Oihana Iguaran eta Manu Goigana bertsolariek bota zituztenak entzuten.



## San Andres bertso-paper lehiaketa abian

Astlehenean zabaldu zen ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako XXII. San Andres bertso-paper lehiaketarako lanak entregatzeko epea. Parte hartu nahi dutenentzat bete beharreko baldintzak hauek dira: 16 urtetik gorakoek (Euskal Herri mailan) 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (10 gehienez) aurkeztu beharko dituzte eta 16 urtetik beherakoek (Eibarko ikasleak), berriz, bertso bat edo bi kopla. Gaia eta doinua libreak izango dira eta lanaren hiru kopia bidali beharko dira, gaitzizenarekin sinatuta. Gutunazal itxi batean gaitzizena identifikatzeko datuak sartuko dira: izen-abizenak, telefonoa eta adina. Taldean egingandako lanik ez da onartuko eta bertsoak postaz bidali edota norberak ekar ditzake ...eta kitto!-ra (Urkizu 11 solairuartea, 20600 Eibar). Lehiaketarako lanak azaroaren 7ra arte jasoko dira. Sari bi banatuko dira maila bakoitzean: helduen mailan, lehenak 300 euro eta txapela jasoko ditu eta bigarrenak 250 euro eta plaka; eta gazteen mailan, lehenak liburua eta txapela eramango ditu eta bigarrenak liburua eta plaka. Epaimahaiak azaroaren 18an



*Aurreko edizio bateko sari banaketaren ekitaldia.*

emango ditu ezagutzera irabazleen izenak, eta azaroaren 27an, domeka, Portalean egingo den San Andres Bertso jaialdian banatuko dira sariak.





## Tomate-dastaketarako izen-ematea zabalik

Urriaren 19an tomate-dastaketa saioa egingo da ...eta kitto!-n, Illunabarrian egitasmoaren barruan, 19:00etatik aurrera. Ortutik Ahora elkarteke Sergio Gonzalezek zuzenduko du dastaketa eta, besteak beste, gehienontzat ezezagunak diren tomate mota ezberdinak zuzenean ezagutu eta probatzeko aukera izango da. Euskal Herriko hazien sarean 30 tomate mota baino gehiago daude erregistratuta, baina, hala ere, hemengo tomate barietate gehienak ezezagunak egiten zaizkigu. Gonzalezek dioenez, "jende gehienak ez daki geure tomate mota propioak ere baditugula, esaterako Busturiako Pikoluze tomatea. Dastaketa hauetan, beraz, tomate klaseak ezagutu eta probatu egiten ditugu, ondoren bakoitzaren ezaugarriak ondo berrezteko. Horrela konturatu gaitzke batzuk agian aproposagoak direla saltzarako, edo beste batzuk entsaladarako edota kontserbatzeko". Izen emateko epea zabalik dago (943200918 telefonoan) eta prezioa 3 eurokoa da.



## Liburu eta Disko Azoka, 14tik 23ra

Datorren asteko barixakuan, hilak 14an zabalduko ditu atea Eibarko Liburu eta Diska Azokak. Udalak Euskadiko Liburu Ganbararekin elkarlanean antolatutako azokan, urteroko moduan, literatura zein musika arloan kaleratutako lanik berrienak erosteko aukera egongo da, prezio berezian, gainera. Azokan parte hartuko dutenen salmenta postuak Untzagan egongo dira, urriaren 23ra arte.

## Lucenaren argazkiak Soraluzean

Urriaren 13tik 29ra arte Jose Manuel Lucena argazkilaria lanak ikusteko aukera izango da Soraluzeko erakusketa gelan. "Beguratiokiak" izeneko erakusketa aurrean 30 urte beteko dituen Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatu du. Lanegunetan 19:00etatik 20:30era zabalduko ditu atea eta zapatuetan, berriz, 12:00etatik 13:30era.

JOSE MANUEL LUCENA  
**'MIRADORES'**

SORALUZE (GIPUZKOA) - ERAKUSKETA GELA  
2016ko urtarrilaren 13tik 29ra  
Lan egunetan 19:00 - 20:30  
Lanabatean 12:00 - 13:30

ANTOKOZUELA  
ORGANIZAZIOA

ERAKUSKETA GELA  
SORALUZE

Kontrargi Argazki Kolektiboa  
Paseo de la Libertad, 104 - 48901 BILBO  
1998-2016  
kontrargi@kontrargi.com

## Dantza garaikidea Coliseoan

Lasala Danza konpainiak "Hooked (Still) + Lauesku 22" ikuskizuna eskainiko du datorren asteko barixakuan (urriak 14an), 20:30ean Coliseoan (6 euro). Dantza eta argazkilaritza arloko artistek osatzen dute Judith Argomanizek zuzentzen duen Lasala dantza garaikideko konpainia eta, 2013an sortu zenetik, Espainiako zein atzerriko hainbat jaialditan parte hartzeko gonbidapena jaso du taldeak.



## Rock kontzertua urriaren 15ean

EMGE Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatuta, rock kontzertua egingo da Untzagan urriaren 15ean, 22:00etatik aurrera. Taula gainean herriko hiru taldek jardungo dute bata bestearen atzetik: Etoa Naizen, Garrapata eta The Rockos.



## Sanandresak 2016 kartela

Urriaren 13an amaituko da urteroko San Andres jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Lanak entregatzeko zein informazio gehiago eskatzeko Pegorara jo daiteke. Irabazlearentzat 600 euroko saria egongo da.





EKHI BELAR

## Lanroberran

Orain dela pare bat barixaku Arraten egon nintzen eibartarron tenplu naturala urrutiko familikide bati erakusten. Hainbeste urtetan hainbat korrika eta jolas egiten ikusi gintuen kanpa sakratua ez da nolanahiko tokia niretzat. Gero etorriko ziren Arrateko Jaixetako ordu txikiak dantzak, baina hori beste baterako utziko dugu.

Bada, begira. Barixakua bazen ere bizi-bizirik zegoen Arrate. Inork ez dakien nongo eskolatik igotako egundaka haur zeuden egun argi eta bero hartan. Dena ondo.

Gu gurutzera bidean jarri ginen. Badakizue, bisitariari kontatu beharra genion gurutzeari bueltak emateak maitasun ondorioak dituela. Aldapa igo aurretiko zibilizazio bular inguru pixka bat zikin ikusi bagenuen ere, tira, gu gora. Gurutzeari ordea, ze kristo! Nahia ere zaila da mendia hainbeste zikintzea. Zein ausartzen da gure Arrate horren gaizki tratatzea? Gu, gaztetan, agian, ez dakit.

Jakitun plantak egingo ditut, baina uste dut Dostoievskiren liburu batean zela non pertsonai bat belanaldi berriez kezkatzen zela. Zaharrak gure belaunaldiaz kezkatuko diren bezela, gu hurrengo eta horrela infinituraino. Pentsa, idazle errusiarra 1881an hil zen eta gaur egun epaieketa bera egiten jarraitzen dugu. Iraganaren idealizazioa.

Baina ez, gu bai ginela zoriontsuak. Gu lanroberran gindoazen. Goian bego, Imanol Urbieta!

## Jardunaldi Mikologikoen 18. edizioa ate joka

Datorren asteko asteburuan, barixakua hasi eta domekara arte, biziko dute Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen Jardunaldi Mikologikoen 18. edizioa. Hilaren 14an perretxikoen gaineko hitzaldia eskainiko dute Aranzadi Zientzia Elkarteak Deporrren bertan, arratsaldeko 19:00etan hasita. Hurrengo egunean, zapatuan, haur eta gurasoen mendi irteera izango da, perretxikoak biltzera antolatutakoa. Autobusa 08:15ean irten go da Ego Gaineko geltokitik eta, handik bueltan, egunean jasotako espezieen aukeraketa eta sailkapena egingo dute Klub Deportiboan, Aranzadikoen laguntzaz.



Arratsaldean, 18:00etatik 22:00etara, perretxikoak pintxoak dastatzeko aukera izango da herriko hainbat tabernetan; eta, tarte horretan, DeeVersions taldeak kontzertua eskainiko du Toribio Etxebarria kalean. Hilaren 16an, domekan, azken urteotakoari jarraituta, Perretxikoen Jaia egingo da, hiru ekitaldiekin: goizeko 10:00etatik 14:00ak arte, bezperan bildutako eta sailkatutako

perretxikoak erakutsiko dira T. Etxebarria kalean; bestalde, produktu mikologikoak salduko dira toki berean, Mikel Lasaren eskutik; eta, amaitzeko, perretxikoen dastatze bazkariak gozatze-ko aukera izango da Klub Deportiboan.

## Kurtso berria zabaldu du UEU-k

Ikasturte berria hasi zuen aurreko astean UEU-k, Markeskuak hartu zuen ekitaldian. Iñaki Alegria UEUko zuzendariak aurreko ikasturteko balorazioa egin eta aurtengoaren erronkak azaldu zituen eta, esan zuenez, "aurreko ikasturtea oso emankorra izan da alde akademikotik. Udan zein neguan izan da igoera hori, baina batez ere neguko ekitaldietan eta online arloan. Gainera, online modalitatean ematen den joera hori azken urteotan iraunkorra da". Lankidetzaren arloan ere ikasturte emankorra izan dela gaineratu zuen, "aurretik zeuden hitzarmenei NUPekin lortutakoa gehitu zaielako". Erakunde publikoekin, aldundiekin eta udalekin ere bideratu dituzte proiektu berriak, baita bestelako eragileekin ere. Datorren ikasturtera begira hiru dira UEUren erronka nagusiak: graduondokoetan eta masterretan eskaintza berriak lantzea, online aukera areagotuz; Iruñean egingo den 2. Iker-Gazte kongresuan lehenengoaren maila berdintzea; eta, erronkarik handiena, online unibertsitate



Sarrera hitzaldia Jakin-eko zuzendariak, Lorea Agirrek, eskaini zuen, euskararen borroka feministaz.

tatea martxan jartzea. Jarraian Lorea Agirre Jakin-eko zuzendariak sarrera hitzaldia egin zuen, "Egin izateko. Euskararen borroka feminista" izenburuari jarraituta.

## Gure Zozketako saria 1.548 zenbakiarentzat

Astelehen goizean egin zuten Bergaran, notario aurrean, Kilometroak 2016ko Gure Zozketaren zozketa eta zenbaki saritua (60.000 euro) 1.548 izan da. Ordezkoa, berriz, 18.890 da. Irabazleak hilebeteko epea dauka saria jasotzeko. Zenbaki saritua epe horretan azaltzen ez bada, ordezkoak beste hilebeteko epea izango du saria jasotzeko. Harremanetarako Bergarako Aranzadi Ikastolara jo behar da (943 76 90 71).





### Errosarioko ezpata-dantza ELGOIBARREN

Barixakuan Errosarioko Amaren ezpata-dantza Elgoibarko kaleetara aterako dute Haritz dantza taldekoek. Ezpata-dantza urtero dantzatzan dute Errosarioko festetan, baina aurten Errosarioko Ama Birjinaren egunean bertan, urriaren 7an dantzatuko dute, 12:00etako meza nagusiaren ondotik.



### Antzerki Garaia SORALUZEN

Soraluzeko Udaleko Kultura Batzordeak Antzerki Garaia izeneko antzerki-zikloa antolatatu du. Antzezlanak urriko eta azaroko barixakuetan taularatuko dira, hamabostean behin eta lehen lana, "Putinen guardasola", bihar eskainiko dute Ramon Agirre eta Inazio Tolosak, 20:00etan hasita.



### ERMUKO Eskilarapeko Eguna

Ermuko Eskilarapeko Ateneoak bere eguna ospatuko du zapatuan. Goizeko 11:00etan hasiko dira, umeentzako jolasekin (plazan); 14:30ean herri bazkaria egingo dute eta arratsaldean dokumentala emango dute Eskilarapekon (17:00etan eta 18:00etan); 19:00etan Elektro-Txarangarekin poteoa hasiko da eta 22:30ean, berriz, kontzertua (Eskilarapekon).

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

## hildakoak

- Isaac Silvares Gonzalez. 70 urte. 2016-IX-29.
- Mertxe Bilbao Olaberria. 89 urte. 2016-IX-29.
- Manuel Garcia Calzon. 86 urte. 2016-IX-30.
- Isidra Rodriguez Nieto. 78 urte. 2016-IX-30.
- Belarmina Del Estal Guillon. 90 urte. 2016-X-3.

## jaiotakoak

- Alex Cortés Cortés 2016-IX-27.
- Onai El Hait Touimi. 2016-X-1.

## farmaziak

- Barixakua 7  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Zapatua 8  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domeka 9  
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 10  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 11  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 12  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 13  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 14  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
 Iraundegi (Calbeton, 19)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## AURREKOAREN EMAITZA

## SUDOKUA

4	7	5	8	2	9	1	3	6
1	9	3	6	4	7	5	2	8
8	2	6	1	5	3	7	4	9
9	4	7	3	6	5	8	1	2
6	8	2	7	1	4	9	5	3
5	3	1	9	8	2	4	6	7
7	1	9	4	3	6	2	8	5
3	5	8	2	7	1	6	9	4
2	6	4	5	9	8	3	7	1

		8			1	7		
5					8	4	3	
	3			4				
6					9	2		8
		9				5		
2		3	4					1
				5			9	
	6	5	1					4
		2	9			6		

## Eguena 6

### POESIA

**19:00.** Ciudad Juarez en (Mexiko) gertatutako hilketak salatzeneko poesiak irakurtzeko saioa, Itzamna poesia tailerraren eskutik. Itzamna akademian.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

## Domeka 9

### KONTZERTUA

**12:30.** Cielito Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

## Astelehena 10

### ATE-IREKIEK JARDUNALDIA

**11:00.** Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, ate irekien jardunaldia: gonbidatuei harrera eta zentrua ezagutzeko bisita.  
**11:30.** Aurkezpena.  
**11:45.** Agifis elkartearen 30. urteurrenaren bideo-proiektzioak.  
**12:00.** Manifestua irakurtzea.  
**12:15.** Zentruko erabiltzaileen azalpenak.  
**13:00.** Luntxa.  
**14:00.** Agurra. Agifis elkartearen zentruan (Urkizun).

## Martitzena 11

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### IRAKURKETA KLUBA

**19:00.** Gaztelerazko irakurketa taldearen saioa: "Nora" (Irati Jimenez). Portalean.

## Eguaztena 12

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## Eguena 13

### IKASTEN

**18:00.** Dantzaldia. Untzagako jubilatuei etxean.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

## Erakusketak

### Urriaren 16ra arte:

– JOSE ZUGASTIREN "Biharra. Arimakoa" erakusketa. (Portalean)

### Urriaren 29ra arte:

– JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki-erakusketa. (El Corte Inglesean -ekitaldi aretoan-)

### Urriaren 31ra arte:

– GOTZON IRAZOLAREN perretxikoen munduko argazki-erakusketa. (Klub Deportiboan)

## zineaColiseoan

### (1 ARETOAN)

**8an: 19:45, 22:30**

**9an: 20:00**

**10ean: 20:30**

### "Los siete magníficos"

Zuzendaria: Antoine Fuque



### (2 ARETOAN)

**8an: 17:00, 19:45, 22:30**

**9an: 17:00, 20:00**

**10ean: 20:30**

### "Vientos de La Habana"

Zuzendaria: Felix Viscarret



### (ANTZOKIAN)

**8an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30**

**9an: 17:00<sup>(1)</sup> (Aretoan), 20:00**

**10ean: 20:30**

### "Un monstruo viene a verme"

Zuzendaria: J.A. G<sup>a</sup> Bayona



### (ANTZOKIAN)

**8an: 17:00**

**9an: 17:00**

### "Robinson"

Zuzendaria: Vincent Kesteloot



**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, JULEN, etzi, zapatuan, urtetxua beteko dozu-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ALAITZ, astelehenian 15 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, XUBAN, atzo zazpi urte egin zenduazelako. Musu haundi bat, potxolo, etxeko danon partez.



Zorionak, MARKO, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Musu erraldoi bat danon partez!



Zorionak, ANE, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Musu pillote famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HIART, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HARITZ, aurreko domekan sei urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IKER, gaur zortzi urte betetzen dozuzelako. Patxo asko famelixa guztiaren partez. Pillua maite zaittugu.



Zorionak, NAIA, 11n sei urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Alaitz zure ahiztaren partez.



Zorionak, ANER, martitzenian bost urte bete zenduazelako. Musu bat famelixaren eta, batez be, Danel eta Noaren partez.



Zorionak, IZEI Aranberri Zubizarreta, zapatuan urtetxua egingo dozu-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Lizarren partez.



Zorionak, JON eta ASIER, gaur urtiak betetzen dozuez-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKAIN, sei urte bete dozuzelako. Musu potolo pillua zure famelixaren partez.

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua alogagai Soroluzen. 2 logela, egongela eta sukaldea. 350 euro. Deitu 19:00ak baino lehen. Tel. 619-505987.
- Logela alogagai Eibarren, sukaldea erabilzeko eskubidearekin. Pertsona arduratsua. Tel. 695-716229. Amaia.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 608-588444.
- Logela alokatzen dut Amañan, etxe guztiak erabilzeko eskubidearekin. Familia giroa. Tel. 632-607193.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 625-019711.
- Pisua hartu nahi dut alokairuan Eibarren. Tel. 622-824468.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Ipuruan, fobalzelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alogagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alogagai Ubitxa inguruan. Kalera irteera zuzena. Bulego, lantegi edo tailer txikirako aproposa. 70-150 m<sup>2</sup>. Tel. 617-688311.
- Ilepaindegia alogagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 637-191540.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-191832.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-916761.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-901599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da emakume nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-973549.
- Geriatriako laguntzaile arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Baita gauzez eta ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 660-511781 eta 943-742330.
- Neska eskaintzen da publikitatea banatzeko eta garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 632-280947.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-175581.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-191397. Aida.
- Neska arduratsua euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 667-940741.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Baita arratsalde ere. Tel. 675-215025.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 632-518437.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserri lanetarako. Tel. 634-830423.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde (13:00etatik aurrera) umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-190614.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 722-555027.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.

### 4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna (30-50 urte artekoa) behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-781942.
- Banatzailea behar da ordezkapenak egiteko. Autoa gidatzeko baimena beharrezkoa. rrrh@vinosconsolera.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Bidali curriculum-a: esteticieneibar@gmail.com
- Eibarko enpresa batek arteztaille konbentzionala behar du. Bidali curriculum-a: recificador.eibar@gmail.com
- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegia batean. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Errusierako irakaslea behar da. Tel. 678-883025.
- DBH4ko klase partikularrik etxean emango dizkidana behar dut: gai guztiak orokorrean. Tel. 636-523804.
- Eibarko akademia batek ingeles eta frantseseko irakasleak behar ditu. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum-a: irakasle-eibarCV@gmail.com

## 5.2. Eskaintzak

- MDBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Irakasle-masterra duen neska eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrik emateko. Tel. 699-495279.
- Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.
- Magisteritza eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrik emateko. Tel. 638-715066. Saioa.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrik eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Neska eskaintzen da LH, DBH eta Batxilergoko klaseak emateko. 3 laguneko taldeak. Tel. 943-127365 eta 685-739709.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da haur eta gazteei klaseak emateko. Ingeles titulua. Tel. 692-706012. Leire.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Magisteritza ikasitako ingeleseko titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- Magisteritza ikasitako EGA titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 677-539087.
- Musika klase pertsonalizatuak ematen ditut zure etxean. Zure beharretara egokitutako metodo alaiak: biolina, pianoa, musika-hizkuntza, musikoterapia. Adin guztiak. Tel. 645-513273.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Bikiendako silla eta autoan umeak eramateko bi jarleku salgai. Tel. 616-909630.
- Bikiendako (6 hilabetera arteko neskek) erropa salgai. la berria. Tel. 660-805301.
- Alfonbra salgai (1,99 zabalera x 2,93 luzeera). Tel. 656-794762.
- 0,90eko sukaldea salgai, gas bonbonak eramatekoarekin. Baita 0,90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Sehaska eta 0'90eko oherako bi koltza salgai. la berriak denak. Tel. 943-203014.
- Narruzko bi sofa salgai (bat birezat, besteak bakarrarentzat). Tel. 619-163031.
- 1,35x1,90eko koltxoia (Woolmark markakoa) salgai. Biskolastikoa eta transpiragarria. Tel. 619-673058.
- Mountain-bike bizikleta (Conor markakoa) salgai. Berria. Tel. 619-673058.

### 6.3. Galdututa

- Pultsera galdututa nuen irailaren 21ean Julian Etxeberria eta Calbeton kaleen artean. Sarituko da, duen balio sentimentalak delata. Tel. 635-731659.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdututa/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

**Degluzio atipikoa**      **Arreta arazoak**  
**Disfonia**              **Berba arazoak**  
**Ikaste-arazoak**        **Dislexia**

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

 **ELENA AIZPUN**  
124 kolegiatu zenbakia

**PODOLOGOIA**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

## Psikologoak

 **AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

**Tel. 675 70 68 07**

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOIA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

**Tel. 605 75 75 06**

## Okulistikak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

 BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOIA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **SEXOLOGIA ZENTROA**

**Arantza Alvarez**  
Psikologoa-Sexologoa  
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com  
Tfnoa. 645 73 23 88

**KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia**

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Dislexiak
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27


 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• **Miopia ebakuntzak**  
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



 **PODOLOGOIA**

**Maidor Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

**Tel. 943 20 86 41**

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...  
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023



# Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun



[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)